



GOBERNU BATZARRA

2023.03.7

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Begoña Tolosa Mendia
Xarles Iturbe Pasaban
Xabier Balerdi Tolosa
Jose M. Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren zazpian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2023ko otsailaren 14koa.
2. X.V.A.-ek aurkeztutako helegitea ebaztea.
- 3.I.A.M.-k aurkeztutako helegitea ebaztea.
4. M.P.A.Z.-k aurkeztutako helegitea ebaztea.
5. J.M.A.-ek aurkeztutako helegitea ebaztea.
6. Udaltzaingoko ordezkariak egindako eskaerei erantzutea.
7. Dekretu hauen berri ematea:
 - 2023/315 dekretua: 2022/64 faktura zerrenda.
 - 2023/331 dekretua: 2022/65 faktura zerrenda.
 - 2023/384 dekretua: 2022/66 faktura zerrenda.
 - 2023/388 dekretua: 2022/67 faktura zerrenda.
 - 2023/390 dekretua: 2022/68 faktura



zerrenda.

**2023/389 dekretua: 2022/69 faktura
zerrenda.**

**2023/422 dekretua: 2022/70faktura
zerrenda.**

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2023KO OTSAILAREN 14KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. X.V.A.-EK AURKEZTUTAKO HELEGITEA EBAZTEA.

AURREKARIAK

X.V.A.-ek 2023ko urtarrilaren 26an berraztertze-errekurtsoa aurkeztu du Tokiko Gobernu Batzarrak abenduaren 1ean hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaileak onartu ziren, zehazki Administrazio Bereziko Eskalako A1 azpitaldeko azpieskala teknikoan. Errekurtsoan bertan, honako hau eskatzen du:

- “Informatika eta telekomunikazio arduradunari” hirugarren hizkuntz eskakizuna ezartzea.
- Lanpostu honi titulazioa mugatzea eta “telekomunikazio “ hitza ezabatzea.
- Baldintza gehigarri gisa ingeleseko C1 maila eskatzea.

Helegite hau aztertzerako garaian, kontuan hartu behar da 2022ko azaroaren 29an egindako txostena, oinarrien egokitasunari buruzkoa. Dena den, helegite honen inguruko honako proposamena egiten da, hain zuzen ere:

Arestian aipatu den bezala, Administrazio Bereziko Eskalako A1 azpitaldeko azpieskala teknikoan dagokion “Telekomunikazioetako eta informatika arduradun” lanpostuari dagokion oinarri espezifikoeetan hiru atal ezberdin aldatzea eskatzen du baina hirurak ez daude oinarrien onarpenarekin erlazionatuak baizik eta lanpostu horretatik eratorri diren lanpostuaren baldintza edo ezaugarriekin erlazionatuak daude; azken hauek udalak onartzen duen planifikazio instrumentuaren arabera (Lanpostu zerrenda) finkatutako ezaugarriak dira eta hortaz, hizkuntz eskakizunaren aldaketa, lanpostuaren izen aldaketa eta lanpostu honi baldintza gehigarriak jartzea ez leudeke helegite honen objektuaren barnean. Hala eta guztiz ere, helegitean egindako eskaerak erantzuten dira:



Lehena.- “Telekomunikazioetako eta informatika arduradun” lanpostuari hizkuntz eskakizuna hirugarrena izatea, laugarrena izan beharrean.

Tolosako udalak, bi elementu nagusi kontuan izan ditu hizkuntz eskakizunak lanpostuei finkatzerako garaian:

- Bata, lanpostu bakoitzari ezarritako funtzioetatik ondorioztatu da dagokion hizkuntz eskakizuna eta irizpide hau Hizkuntz Politikarako sailordetzak emandako txostenarekin bar dator. Zentzu honetan, laugarren hizkuntz eskakizun esaktzearen zergatia zuzenaren funtzioekin erlazionatua legoke; kasu honetan onartu berri den lanpostuen deskribapenean, hauexek dira bere funtzioak;

INFORMATIKA ETA PROZESUEN NORMALIZAZIOA:

1. Erakundearen beharrak eta merkatuko berritasun teknologikoak aztertzea, egoki iriztitako berritasunak ezartzea, arazoituta, proposatzeko.
2. IKTen arlo guztietako prototipoak ikertzea, ebaluatzea, garatzea, eta abar, etorkizunean erakundearen ezarri beharko balira ere.
3. Unitatearen eskumeneko arloen gaineko txosten teknikoak egitea barnean edo kanpoan erabiltzeko.
4. Berrikuntza teknologikoko proiektuak bultzatzea, garatzea, haien jarraipena egitea eta ikuskatzea.
5. Udalaren sare eta sistemek behar bezala funtzionatzeko lanak bultzatzea, haien jarraipena egitea eta ikuskatzea.
6. Udalean administrazio elektronikoa ezarri eta manten dadin bultzatzea, haren jarraipena egitea eta ikuskatzea.
7. Prozesuak eta prozedurak normalizatzeko lanak bultzatzea, haien jarraipena egitea eta ikuskatzea, haiek arrazionalizatzeko, sinplifikatzeko eta etengabe hobetzeko.

UNITATE/SAILAREN KUDEAKETA:

8. Bere funtzio-eremuko espedienteetan proposamen teknikoaren orriak egitea, eta balioespen-txostenak egitea horietan oinarritutako lizitazioetan.
9. Kontratazio-organoak zehazten dituen kontratuek arduratzea, zerbitzua edo hornidura ematen dela bermatzea, eta horien ondoriozko fakturak egitea.
10. Unitatearen urteko aurrekontu-proposamena egitea, eta haren jarraipena egitea, exekuzioa kudeatuta.
11. Teknikari gisa parte hartzea, horretarako eskatuz gero, eta bere eskumeneko arloei dagokienez, udal informazio-batzordeetan.



12. Sailen arduradunen aldian behingo bileretan parte hartzea.

ATXIKITAKO BALIABIDEEN AGINTEA:

13. Mendekoek gauzatu beharreko zereginak planifikatu, antolatu, ikuskatu eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
14. Mendeko langileei aholkularitza teknikoa ematea, eta haien zalantzak edo sortzen diren gorabeherak ebaztea.
15. Mendeko langileen kudeaketa egitea, eta horiek kontrolatu eta ikuskatzea, eta baimenen, prestakuntzaren, lizentzien eta oporren arloan oniritzia ematea.
16. Mendekoekin koordinazio, ikuskapen eta jarraipenerako bilerak egitea.

Zerbitziburua izanik, funtzio hauetatik ondorioztatzen da lanpostuaren funtzioak modu eraginkor batean garatu ahal izateko, hizkuntzaren arlo teknikoa ezagutu behar duela, hau da, baldintza plegu teknikoak egiteko, kontratazioko lizitazioaren inguruko txostenak egiteko edo zerbitzu instrukzioak egiteko beharrezkoa da goragoko maila tekniko eta espezializatua edukitzea, kasu honetan laugarren hizkuntz eskakizunaren maila.

- Bestea, "A" klasifikazio taldean dauden arduradun lanpostu guztiek laugarren hizkuntz eskakizuna dute ezarrita bere lanpostuen ezaugarrietan eta ez dirudi oso zentzuzkoa eta zilegia lanpostu batek maila bat baxuagoa edukitzea eskakizuna, kontuan hartuta hirugarren hizkuntz eskakizuna duten lanpostuak oro har, beheragoko maila batean daudela, besteen artean, saila berean dauden informatikari teknikari laguntzaileak.

Bigarrena.- "Telekomunikazioetako eta informatika arduradun" lanpostuari titulazioa mugatzea eta "telekomunikazioetako gradua" ezabatzea.

Kasu honetan ere, baldintza hau lanpostuaren ezaugarriekin erlazionatua dago; titulazioa mugatzea ez da onargarria, izan ere lanpostu honen funtzioak aztertu ondoren, bai informatika arloari baita telekomunikazioetako arloari dagozkion funtzioak egin beharko lituzke, hau da, arduradun lanpostua modu eraginkorrean bete ahal izateko, bi titulazioetako edozein baliogarri izan daiteke eta horrela finkatu da onartu berri den lanpostuen balorazioan eta lanpostuen honen deskribapenean.

Hirugarrena.- Lanpostuari baldintza gehigarri gisa ingeleseko C1 maila eskatzea.



Eskakizun hau ere hautaketa jardunbidea arautzen duen oinarriekin zerikusia ez du, izan ere lanpostu bakoitzaren ezaugarriak, orokorrak zein bereziak, udaleko lanpostu zerrendan isladatzen dira eta baldintza zehatz hau ez da aurreikusi eskakizun bezala eta ez da beharrezkoa ikusi udalak eskatzea lanpostua bete ahal izateko. Horregatik, ezin da onartu egindako eskaera.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez onartzea X.V.A.-ek aurkeztutako beraztertze helegitea, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaileei buruzkoak, Administrazio Bereziko Eskalako A1 azpitaldeko azpieskala teknikoan.

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea.

3. I.A.M.K AURKEZTUTAKO HELEGITEA EBAZTEA.

D. I.A.M. ha presentado con fecha 11 de enero de 2023 recurso de reposición contra el acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 2 de diciembre de 2022 por el que se aprueban las bases específicas reguladoras de los procesos excepcionales de consolidación de empleo, derivados de las disposiciones Adicionales 6ª y 8ª de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, relativa a la plaza de Responsable de Urbanismo, Obras y servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición energética, de la subescala técnica de la Escala de Administración Especial, subgrupo A1. En el mismo solicita:

- Anular las bases aprobadas respecto a la plaza de Responsable de Urbanismo, Obras y servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición energética.

- Aprobar unas nuevas bases específicas correspondiente a la plaza de Responsable de Urbanismo, Obras y servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición energética atendiendo al criterio utilizado en el resto de las plazas derivadas de las disposiciones adicionales 6º y 8º de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre.



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0005

Esta propuesta se realiza, sin perjuicio del informe ya suscrito con fecha 29 de noviembre de 2022, sobre la aprobación de los procesos de estabilización y consolidación de empleo temporal.

Analizado el recurso, se realiza la siguiente

PROPUESTA

Primero.- El artículo 23.2 de la Constitución Española establece que los ciudadanos tienen derecho a acceder en condiciones de igualdad a las funciones y cargos públicos, con los requisitos que señalen las leyes.

Este principio de igualdad debe ser modulado, entendido y adaptado a las características derivadas de la Ley 20/2021 de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

En este sentido, esta Ley establece que, respetando la doctrina fijada por el Tribunal Constitucional sobre el principio de igualdad en el acceso a los cargos y empleos públicos (artículo 23.2 CE), este únicamente puede ser exceptuado por razones excepcionales y objetivas.

De acuerdo con la jurisprudencia constitucional, han de darse las siguientes premisas para que no quepa apreciar infracción alguna del principio de igualdad de acceso a cargos y empleos públicos del artículo 23.2 de la Constitución se encuentran, en primer lugar, que se trate de una situación excepcional; en segundo lugar, que sólo se acuda a este tipo de procedimientos por una sola vez, pues de otro modo se perdería su condición de remedio excepcional y en tercer lugar, que dicha posibilidad esté prevista en una norma con rango legal (STC 12/1999, de 11 de febrero de 1999).

En el caso concreto que nos ocupa, se procede analizar si se cumplen las premisas establecidas por la jurisprudencia constitucional:

1.- Que se trate de una situación excepcional: la propia Ley invoca durante todo el articulado la excepcionalidad así como la necesidad de articular diversos procesos excepcionales y especiales en función de la situación de cada Administración Pública,



todo ello con el objetivo de limitar la temporalidad en el seno de las Administraciones Públicas.

2.- Que sólo se acuda a este tipo de procedimientos una sola vez; este requisito se da por cumplido con la aprobación y la publicación de las correspondientes bases reguladoras de los procesos para reducir la temporalidad en el Ayuntamiento de Tolosa.

3.- Que dicha posibilidad esté prevista en una norma de rango legal: este requisito viene avalado por la aprobación de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, para reducir la temporalidad en el empleo público.

Por lo tanto, y como consecuencia de todo ello, el principio de igualdad se debe aplicar a situaciones iguales; ahora bien, dentro de estas situaciones, se deben analizar en qué casos se podría aplicar ciertas singularidades atendiendo a las características del supuesto de hecho.

En el caso que nos ocupa, la singularidad de la aprobación de unas bases específicas para la plaza de “Responsable de Urbanismo, Obras y servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición energética” viene determinada por las siguientes razones:

- La diferencia entre una plaza de “Arquitecto” y una plaza de “Responsable de Urbanismo, Obras y servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición energética” es notoria, tanto en lo que se refiere a las funciones a desempeñar como a la responsabilidad de cada puesto de trabajo. Por ello, se han diferenciado la experiencia entre la plaza relativa a una “Arquitecto” frente a la plaza de un “Responsable de departamento”.

En este sentido, se realizó antes de la aprobación de las bases específicas de la plaza de “Responsable de Urbanismo, Obras y servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición energética” una consulta a la Comisión técnica de Eudel sobre el caso aquí planteado, señalando por aquella institución la posibilidad diferenciar en convocatorias distintas la aprobación de los procesos de “Arquitecto” y “responsable de departamento”.

- Las características diferenciadas de las plazas de “Arquitecto” y de la “Responsable de Urbanismo, Obras y servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición energética”, viene determinada por la naturaleza directiva que conlleva ejercer la plaza de



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0005

responsable en contraposición a la funciones predominantemente técnicas que se ejercen en la plaza de “Arquitecto”.

Esta diferenciación trae aparejada que estas dos plazas puedan (y deban) aprobarse con un criterio de valoración de la experiencia diferentes a la plaza de arquitecto, ya que sus características conllevan realizar en un caso funciones de carácter directivo y en otro, funciones de índole técnico, todo ello siempre dentro del marco regulatorio del cómputo de la experiencia y de aprobación de las bases de selección propuestas por Eudel.

También cabe señalar que la exigencia para cubrir la plaza de Responsable del departamento de urbanismo tiene una exigencia añadida que la de tener cursado el Diploma de Urbanismo de EVETU, que comprende además de la realización de los correspondiente módulos de carácter teórico, la posibilidad de realizar prácticas en una Administración Pública así como la realización de un curso superior o un trabajo de investigación sobre alguna de las materias cursadas.

Por todo ello, queda acreditada la singularidad de la plaza de “Responsable de Urbanismo, Obras y servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición energética” y es por ello, que se ha valorado la experiencia para el acceso a la misma de forma diferenciada respecto al resto de las convocatorias ofertadas por la Ayuntamiento de Tolosa.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, a propuesta del Técnico municipal, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Desestimar el recurso interpuesto por I.A.M. contra la aprobación de las bases específicas reguladoras de los procesos excepcionales de consolidación de empleo, derivados de las disposiciones Adicionales 6ª y 8ª de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, relativa a la plaza de Responsable de Urbanismo, Obras y servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición energética, de la subescala técnica de la Escala de Administración Especial, subgrupo A1.

SEGUNDO.- Notificar la presente resolución al interesado.



4. M. P.A.Z.-K AURKEZTUTAKO HELEGITEA EBAZTEA.

AURREKARIAK

M.P.A.Z.-k 2023ko urtarrilaren 30ean berraztertze-errekurtsoa aurkeztu du bi erabakien aurka:

- Bata, Tokiko Gobernu Batzarrak abenduaren 2an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaileak onartu ziren, zehazki Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuari buruzkoak, Administrazio Bereziko Eskalako A1 azpitaldeko azpieskala teknikoan.

Errekurtsoan honakoa hau eskatzen du: aipaturiko oinarri espezifikoaren 3.2 puntua deusezte, hau da, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuaren baldintza gehigarria ezabatzea, Hirigintzako ikastaroa edukitzearena alegia, izan ere udaleko Lanpostu zerrendan isladatua ez dagoelako baldintza hori.

- Bestea, Tokiko Gobernu Batzarrak abenduaren 1ean hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaile orokorrak onartu ziren. Bertan, 2. Oinarriaren n) hizkia (“ n) Cualesquiera otros requisitos que se exijan en las bases específicas”) legearen aurka doala adierazten du eta esaldi horretan, “ legales” hitza falta dela argudiatzen du.

- Azkenik, administrazio-egintzaren betearazpena etetzea eskatzen du.

Helegite hau aztertzerako garaian, kontuan hartu behar da 2022ko azaroaren 29an egindako txostena, oinarrien egokitasunari buruzkoa.

Hori horrela, hauxe da egiten den

PROPOSAMENA

Lehen arrazoa.- Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuari buruzko oinarri espezifikoetan, bere 3.2 puntuan baldintza gehigarria ezabatzearen inguruan, Hirigintzako ikastaroa edukitzearena



alegia, udaleko Lanpostu zerrendan isladatua ez dagoelako baldintza hori. Aurkaratzeko arrazoi hau ezin da aintzat hartu, honako arrazoiengatik:

Gaur egun, udalak onartua eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean (2023ko otsailaren 7an, 25 zenbakia) argitaratua duen 2022 urteko lanpostu zerrendan ez da azaltzen Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuari dagokion baldintza gehigarria zehaztua baina honek ez du esanahi lanpostua betetzeko ukanbehar hau behar ez denik.

Arrazoibide honek, bi elementuetan du oinarria:

- Lehena, 2018 urtean onartu zen Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2018-2020 enplegu Planaren lehen fasearen behin-betiko onarpena (2018ko abenduaren 12an Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu zena); bertan, lanpostu honi egindako alegazio baten ondorioz, lanpostu honi baldintza gehigarri gisa, Hirigintza eta Lurralde Antolaketako ikasketei dagokion ikastaroa, gutxienez 700 ordukoa, onartu zen.

- Bigarrena, 2022ko abenduaren 15ean udalak onartu berri duen lanpostuen balorazioaren ondorioz, lanpostu zerrenda berria onartu eta argitaratu da (Gipuzkoako Aldizkari ofizialean, 2023ko otsailaren 7an); bertan, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuari dagokion baldintza gehigarria 29 zenbakiarekin dago eta honelaxe dio: "4 urteko esperientzia, egiaztagarria bere eremu funtzionalaren kudeaketan edo **prestakuntza**/trebakuntza **asimilagarria**. Ofimatika aurreratua".

Baldintza honetatik ondorioztatzen da lanpostu honetarako eskatzen den baldintza gehigarria, nahiz eta zehaztua ez egon, 2018 urtean onartu zen "Hirigintza eta Lurralde Antolaketako ikasketei dagokion ikastaroa, gutxienez 700 ordukoa" baldintza barnebildua dagoela eta horregatik Hirigintzako arduradun lanpostuaren oinarri arautzaileen 3.2 puntuan baldintza gehigarri hau eskatzen da.

Dena den, segurtasun juridikoa bermatze aldera, zuzenketa hau egingo da Lanpostu zerrendan dagokion ikastaroa zehaztuaz.

Halaber, errekurtso egileari informatzen zaio oinarri espezifikoko hauetan, alegia Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuan, 3.2. oinarriaren erredakzioa modu honetan onartu dela:

"Baldintza gehigarria: Hirigintza eta Lurralde antolaketako ikasketei buruzko ikastaroa, gutxienez 700 ordukoa edota Hirigintzako Diploma 400 ordukoa."



Bigarren arrazoia.- Tokiko Gobernu Batzarrak abenduaren 1ean enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaile orokorren 2. Oinarriren n) hizkia deuseza dela argudiatzen du. Behin bere eskaera aztertu ondoren, ezin da aintzat hartu honako arrazoiengatik:

2022ko abenduaren 1ean onartutako oinarri arautzaile orokorrek bigarren oinarrian, parte hartzeko baldintza orokorren inguruan, n) hizkiak xedatzen du: "n) Oinarri espezifikotik eskatzen den beste edozein betekizun". Errekurtso egileak adierazten du "legezko" hitza erabili beharko zela.

Dena den, lanpostuek dituzten betebeharrak guztiak ez dute bere jatorria izan behar lege xedapenetatik eratorritako baldintzetan, hau da, toki administrazioek bere antolakuntzaren eskumenen barnean lanpostu zehatz batzuei, beti ere bere funtzio eta eginkizunekin zerikusia dutenak, legean xedatuak ez dauden hainbat baldintza gehigarri ezartzeko eskumena du; esate baterako, udaltzainei hainbat gida baimen orokor eta berezi eskatzea edota brigadako lan taldean kamoia gidatzeko gida baimena eskatzea eta hauek ez dira lege betekizunak.

Horregatik, errekurtsio egilearen bigarren arrazoi hau ere ez onartzea proposatzen da.

Azkenik, Tokiko Gobernu batzarrak hartutako erabakien etetzea eskatzen du, beraztertze errekurtsio hau erabakitzen ez den bitartean. Kontuan hartuta, errekurtsioa ebatziko dela hautaketa jardunbidea aurrera jarraitu aurretik, prozedurarekin jarraitzea proposatzen da.

Zentzu honetan, legeak xedatzen du errekurtsioa ebatzeko eskumena duen organoak, eteteak interes publikoari edo hirugarrenei eragindako kaltearen eta errekurritutako egintzaren berehalako eraginkortasunaren ondorioz errekurtsioegileari eragindako kaltearen artean haztatu ondoren, aurkaratutako egintzaren betearazpena eten ahal izango du, ofizioz edo errekurtsioegileak eskatuta, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean: a) Betearazpenak kalte konponezinak edo konpongaitzak eragin ahal izatea.

b) Aurkaratzea lege honen 47.1 artikuluan aurreikusitako erabateko deuseztasunaren arrazoietako batean oinarritzea.

Honela, 2022ko abenduaren 2an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia eteteko bi faktore hauetakoren batean oinarritu behar da:



- Kalte konponezinak sortzea: kasu honetan, hautaketa jardunbidea ez da garatu, akordio hau onartu eta oinarri arautzaileak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean joan den abenduaren 28an argitaratu zirenetik; hortaz, ustez sor daitezkeen kalteak konpongarriak lirateke, beti ere interesatuak arrazoa edukiko balu bere helegitean.
- Erabakia deuseztasun arrazoi batean oinarritzea: kasu honetan ere ez dira egintza administratibo hau deuseza deklaratzeko elementuak ematen, horregatik behin helegitea ebatzita, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia ez eteteko proposamena egiten da.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez onartzea M.P.A.Z.-k aurkeztutako beraztertze helegitea, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaileei buruzko oinarri orokorren eta oinarri espezifikoaren aurka; azken kasu honetan, zehazki Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuari buruzkoak.

BIGARRENA.- Administrazio-Prozedurarekin jarraitzea betearazpenak kalte konponezinak edo konpongaizak ez dituelako eragiten.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea.

5. J.M.A.-K AURKEZTUTAKO HELEGITEA EBAZTEA.

AURREKARIAK

J.M.A.-k 2023ko urtarrilaren 27an berraztertze-errekurtsoa aurkeztu du Tokiko Gobernu Batzarrak abenduaren 2an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaileak onartu ziren, zehazki Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuari buruzkoak, Administrazio Bereziko Eskalako A1 azpitaldeko azpieskala teknikoan. Errekurtsoan bertan, honako hau eskatzen du:



Aipaturiko oinarri espezifikoan 3.2 puntua aldatzea, hau da, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio Energetikoko arduradun lanpostuaren baldintza gehigarrian, "Hirigintza eta Lurralde antolaketako ikasketei buruzko ikastaroa, gutxienez 700 ordukoa" eskatu beharrean, honakoa eskatzea: "IVAP-EVETUK antolatutako Hirigintzako Diploma (besteak beste, sei eskola-moduluak gainditu izana ziurtatzen duena).

Helegite hau aztertzerako garaian, kontuan hartu behar da 2022ko azaroaren 29an egindako txostena, oinarrien egokitasunari buruzkoa.

Hori horrela, hauxe da egiten den

PROPOSAMENA

Lehena.- Errekurtso egileak adierazitako Hirigintzako ikastaro hau, IVAP eta EVETU erakundeek antolatzen dute eta azken hamarkada honetan formulazio desberdinak izan ditu baina oinarria bere horretan mantendu da, hau da, ikastaroaren aurrez-aurreko orduak bai egungo formatuan baina aurrekoan ere, 400 ordukoa aurrezko-aurreko klaseak izaten jarraitzen dute; honi, gaur egungo formatuan, beste 300 ordu bertaratzea eskatzen ez zuten orduak gehitu zaizkio, 700 ordu egin arte.

Kasu honetan, lehiaketa jardunbidean parte hartu ahal izateko eskubide berdina izan beharko lukete hautagai guztiek, alegia bai 400 ordutako ikastaroa egin dutenek baita 700 ordukoa egiten dutenek ere, hautaketa jardunbidean lehiatzeko aukera bermatu beharko litzateke, horregatik proposatzen da oinarri arautzaileen 3.2 puntuko baldintza gehigarriaren erredakzioa aldatzea.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea J.M.A.-k aurkeztutako beraztertze helegitea partzialki, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaileei buruzkoak, zehazki Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen, Mugikortasun eta Trantsizio



Energetikoko arduradun lanpostuari buruzkoak, Administrazio Bereziko Eskalako A1 azpitaldeko azpieskala teknikoan, bere 3.2. oinarriari honako erredakzioa emanaz:
“Baldintza gehigarria: Hirigintza eta Lurralde antolaketako ikasketei buruzko ikastaroa, gutxienez 700 ordukoa edota Hirigintzako Diploma 400 ordukoa.”

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea.

6. UDALTZAINGOKO ORDEZKARIEK EGINDAKO ESKAEREI ERANTZUTEA.

Udal Gobernuak eta ordezkari sindikalen artean egiten diren bileretan, udaltzaingoko egutegia negoziatzerako orduan, udaltzaingoko ordezkari sindikalek hainbat eskaera aurkeztu dituzte negoziatzeko. Gai horiek egutegiarekin batera negoziatu baziren ere, egutegiarekin zerikusia ez duten gaiak izanik, gai hauek indibidualki kontsideratu, tratatu eta onartu behar dira. Honako hemen aipaturiko bi aldeen arteko bileretan tratatu eta negoziatu ziren gaiak:

1.- Formazioa: Komiteak honako testua proposatu dute:

“Agente bakoitzak 16 ordu (gutxienez) edukiko ditu formazio espezifikorako urtero. Udalak Formazioa ez badu ematen, ordu hauek, urteko egutegian gehituko dira, lanaldia bezala.”

Formazioa orduak egitea beharrezkoa da baina ez badira egiten, ordu horiek ezingo dira langile bakoitzaren orduetara gehitu, lan egindako orduak kontsideratuko balira bezala. Dena den, udal gobernuak formazioa emateko konpromezua hartzen du eta formazio hori, ordezkari sindikalekin adostuko da, udaltzain buruzagitzak formazio programa bat aurkeztu duelarik.

2.- Prestakuntza fisikoa: Komiteak honako testua proposatu du:

“Urtero (Ekaina aldera) aukerako proba fisikoak egingo dira, udaltzaingoaren prestakuntza fisikoa baloratzeko. Esan bezala, agente bakoitzak erabakiko du hauek egitea ala ez. Proba hauetara aurkezten diren agenteek, aurkezteagatik Berazubiko doako sarbidea emango zaie urte guztirako.

Egingo diren probak:

1- Press Banka (adin eta genero baremo ofizialak kontutan izanda).

2- 50 metroko Sprint-a (adin eta genero baremo ofizialak kontutan izanda).

3- 800 metroak (adin eta genero baremo ofizialak kontutan izanda).

Lehenengo proba gainditzea Norberaren gauzetarako egun bat eskainiko du.

Bigarren eta Hirugarren probak gainditzea Norberaren gauzetarako bigarren egun bat eskainiko du.

Probak kirol departamenduko gainbegiradarekin egingo dira.”

Kasu honetan, proposamena ez da onartzen.



3.- Epaiketak: *testu berri hau proposatu dute:*

“A) LANALDI BARRUAN DAUDEN EPAIKETAK.

Lan ordu bezala kontatuko dira.

B) LAN ORDUTIK KANPO.

Konpentsazioa 7 ordukoa izango da.

Gaeko txandan egonez gero, bezperako gauean ez du lanik egingo eta lan eguna bezala kontatuko zaio.

Kasu guztietan joan etorriko gastuak udaletxearen kontura izango dira, etxebizitzatik epaitegira.”

Proposamena onartzen da eta joan etorriak legediak ezarritako eran ordainduko dira. Honetaz gain, epaitegira joateagatik dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko da.

4.- Señalizazio lanak: lanpostuaren balorazioaren ondorioz, ez dagozkiela funtzio hauek egitea, bakarrik hauen kontrola eta gainbegiratzea. Kasu honetan, larrialdi eta istripu kasuetan señalizazioak jartzen badira, proposamena onartzen da. Dena den, martxoan Brigadako lan taldearekin lan hauen antolaketa koordinatzea proposatzen da.

5.- Kaleko animalien kudeaketa: bakarrik animalien harrera eta udal biltegira ematea egingo dute. Ematen diren egoera ezberdinekin, protokolo bat lantzea proposatzen da; kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura egingo da.

6.- Garabia: funtzio hauek kanpo enpresa baten bidez ematea eta udal langile zehatz gai honetan soilik jartzen eskatu dute. Eskaera hau ez da onartzen, udaltzainen berezko funtzioak direlako.

Aurreko guztia aintzat hartuta, udal gobernuak eta ordezkari sindikalek 2022ko urtarrilaren 10ean, 2023ko urtarrilaren 24an eta 2023 otsailaren 8an egindako bileren ondoren, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Udal gobernuak eta ordezkari sindikalek izandako negoziazioen ondoren, hauek onartzea:

1.- Formazioa: udaltzain bakoitzak 16 ordu (gutxienez) edukiko ditu formazio espezifikorako urtero. Udalak formazioa emateko konpromezua hartzen du eta formazio hori, ordezkari sindikalekin adostuko da, udaltzain buruzagitzak formazio programa bat aurkeztuko duelarik.

2.- Prestakuntza fisikoa:

“Urtero (Ekaina aldera) aukerako proba fisikoak egingo dira, udaltzaingoaren prestakuntza fisikoa baloratzeko. Esan bezala, agente bakoitzak erabakiko du hauek egitea ala ez.



Proba hauetara aurkezten diren agenteek, aurkezteagatik Berazubiko doako sarbidea emango zaie urte guztirako.

Egingo diren probak:

1- Press Banka (adin eta genero baremo ofizialk kontutan izanda).

2- 50 metrotako Sprint-a (adin eta genero baremo ofizialak kontutan izanda).

3- 800 metroak (adin eta genero baremo ofizialak kontutan izanda).

Lehenengo proba gainditzea Norberaren gauzetarako egun bat eskainiko du.

Bigarren eta Hirugarren probak gainditzea Norberaren gauzetarako bigarren egun bat eskainiko du.

Probak kirol departamenduko gainbegiradarekin egingo dira.”

Proposamena ez da onartzen.

3.- Epaiketak: testu berria hau onartzen da:

“A) LANALDI BARRUAN DAUDEN EPAIKETAK.

Lan ordu bezala kontatuko dira.

B) LAN ORDUTIK KANPO.

Konpentsazioa 7 ordukoa izango da.

Gaueko txandan egonez gero, bezperako gauean ez du lanik egingo eta lan eguna bezala kontatuko zaio.

Kasu guztietan joan etorriko gastuak udaletxearen kontura izango dira, etxebizitzatik epaitegira.”

Proposamena onartzen da eta joan etorriak legediak ezarritako eran ordainduko dira. Honetaz gain, epaitegira joateagatik dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko da.

4.- Señalizazio lanak: lan hauen kontrola eta gainbegiraketa egingo dute. Dena den, larrialdi eta istripu kasuetan señalizazioak jarri beharko dira. Gai hau, martxoko hilabetean Brigadako lan taldearekin lan hauen antolaketarako tranzizio faesa garatuko da.

5.- Kaleko animalien kudeaketa: bakarrik animalien harrera eta udal biltegia ematea egingo dute. Ematen diren egoera ezberdinekin, protokolo bat lantzea proposatzen da; kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura egingo da.

6.- Garabia: funtzio hauek kanpo enpresa baten bidez ematea eta udal langile zehatz gai honetan soilik jartzen eskatu dute. Eskaera hau ez da onartzen, udaltzainen berezko funtzioak direlako.

BIGARRENA.- Egindako eskaeren inguruko gaiak negoziatutzat ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udaltzain buruzagitzari eta langileen ordezkariari ematea.

7. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2023/315 DEKRETUA: 2022/64 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/315 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001



ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

64. zenbaki duena, 9.151,43 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

64. zenbaki duena, 9.151,43 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2023/331 DEKRETUA: 2022/65 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/331 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

65. zenbaki duena, 315.393,49 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

65. zenbaki duena, 315.393,49 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0005

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/384 DEKRETUA: 2022/66 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/384 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

66. zenbaki duena, 5.789,68 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

66. zenbaki duena, 5.789,68 eurokoa.

ESKU6365b3e0-594c-4cd9-b31b-eF809d49b009



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0005

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/388 DEKRETUA: 2022/67 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/388 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

67. zenbaki duena, 22.265,21 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0005

67. zenbaki duena, 22.265,21 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaría

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/390 DEKRETUA: 2022/68 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/390 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

68. zenbaki duena, 17.827,66 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau



EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

68. zenbaki duena, 17.827,66 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/389 DEKRETUA: 2022/69 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/389 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

69. zenbaki duena, 8.954 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0005

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

69. zenbaki duena, 8.954 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaría

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/422 DEKRETUA: 2022/70 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/422 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

70. zenbaki duena, 45.486,56 eurokoa.

ESKU6365b3e0-594c-4cd9-b31b-eF809d49b009



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0005

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

70. zenbaki duena, 45.486,56 eurokoa.

BIGARRENA.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

*Nire aurrean,
idazkaria*

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:05ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IGBA0005-2023-03-07 Gobernu batzarra akta/2023-03-07 Gobernu